

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hazi-iraitzi

HAZIAK BANATZERAKOAN landare bakoitza upel bateko sagardoa da; gonapea kumez husterakoan ama bakoitza bezala. Kokoa uretan igeri, astigarra- ren fruitua haizearen dantzan eta beste batzuk jaur- tikitetan: hazi-iraitzi. Haziak zabaltzeko, urrunago bota eta sakabanatzeko, fruitu eraginkorrenak zei- nek baino zeinek diseinatu aritzen den landare espezie mordo ezagutzen dut.

Txilarren kastan biltzen dira batzuk, *Erica* eta *Calluna* generoetako jendea. Hauek pitxar tankerako ontzen dute fruitua eta bertan, barruko tripa hutsean, haziak. Haizeak aparteko ukaldia jotzen duenean fruituak habailarena, katapultarena egiten du eta barruan dituen haziak beren bizitzako bidaiari ekiten diote. Ziur aski, egingo duten bakarra, ernatzetik hil- tzerainoko paisaia izango duten hartarainokoa.

Azalak ematen dueneraino baino gehiago bete eta ustekabeen lehertzen diren fruituak hazten dituzte beste batzuek. Barrabasa, mingotsa edo Lekeition txomin-belarra esaten diotena, adibidez, *Oxalis* generokoa; lurrari arra bete eskas baino kenduko ez dion landarea, hazitxoak bost metrora jaurtitzeko



CHRISTER JOHANSSON

Impatiens noli-tangere, balsamina basatia.

gai da. Balsamina basatiak, *Impatiens noli-tangere*, frui- tua lehertzeko zorirainoko prezioz bete eta eztanda egiten du, haziak barreiatuz. Inork ukituz gero erra- zago lehertzen da eta gaztelera, ingelesez, frantse- sez... izen zientifikoan joera hau ederki asko jasota- ko izen beraz deitzen dute, noli-tangere, ez-ukitu.

Irakurleak galdezka

Yang tao pare bat landatuta dut, arra eta emea. Orain dela hiru urte emeak hogeitau fruitu eman zizkigun baina iaz eta aurten bat ere ez. Inausketa dela-eta arazoren bat dugula suposatzen dut. Enborretik ezker eta eskumara doazen adar nagusiak ere moztu beharko dira? Eskerrik asko. Edorta Miranda (Leioa).

Kaixo Edorta. Kiwiaren jatorrizko izena da yang tao.

Arra eta emea, lehen urteetan biak antzera inausi behar dira, eusteko jarritako egituran zabaltzeko. Lan horretan adar nagusi izan- go direnei mutur ahulak kentzea komeni da, urtetan fruta asko hazteko gai den egi- tura indartsua sortzen ari baitzara. Behin zabaldua, fruta emateko desberdin inausi



behar dira. Arra lorea eman ondoren, beti, udaberrian sartuta. Haren lan guztia loreak ematea da, emearenak polinizatzeko; beraz neguan ez inausi, behin lorea pasata- koan baizik. Gero, hurrengo negua artean, adar berriak eman eta hurrengo urteko loreak prestatzeko nahikoa denbora izango du. Emea aldiz lorea eman aurre horre- tantxe inaustea komeni da, beti ere fruta adar nagu- sietatik bertan zintzilik izan behar duela pen- tsatuz. Honetarako, adar nagusi horietan adar motz eta ahulak utzi behar dira eta inausen ditugunak bi edo hiru begi utziz, horietatik hurrengo urtetan loreak eta fruituak emango dituzten adar txi- kiak sor daitezten.

Babeslea: Gurdy Kooperatiba Elkarte